

BATXILERGO 2. DISEINUA IRAKASGAIAREN PROGRAMAZIOAREN LABURPENA

Irakaslea	ITZIAR FAGOAGA IRURTIA	Maila	BATXILERGO 2	Ikasturtea	2021-22
-----------	------------------------	-------	--------------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Arte Batxilergoko 2. mailako modalitateko lau orduko arloa da, unibertsitatean sartzeko proban (USE- EBAU) enborreko aukerako irakasgaia dena.

Arlo honetan, diseinu munduaren esparru ezberdinak ikusten dira (grafikoa, objektuarena eta espazioarena). Diseinu lan hauen ezaugarriak aztertzen dira eta aplikazio praktikokoak gauzatzen dira, gehien bat diseinu grafikoan (seinaletika, identitate korporatiboa, kartela, argitaratze diseinua, etab.).

[Kontingentzia Plana](#)

[Arreta ez-Presentzialaren Plana.](#)

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.					5	6		8		10	
3) Gaitasun digitala.		2	3	4	5	6	7	8	9	10	
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1		3		5	6	7		9		
6) Ekimena eta ekintzailtza.		2	3	4	5	6	7	8	9	10	
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

BATX CURRICULUMA

Hauek dira curriculumekeo bost multzoak: **1**-Diseinuaren bilakaera historikoa eta esparruak, **2**-Itxuratzeko formalaren elementuak, **3**-Diseinuaren teoria eta metodologia, **4**-Diseinu grafikoa, **5**-Produktuaren eta espazioaren diseinua. Multzo hauek ez dira ikasturtean zehar modu sekuentzialean garatzen, baizik eta haien artean nahastuak. Bost multzoak, ondoren jartzen diren hamaika unitateetan banatzen dira.

ESKOLAEKO JARDUERAK: emakumearen kontrako indarkeriaren aurkako egunerako kartela bat lantzen dugu gelan. Gaia landu, dokumentazioa lortu eta kartela gauzatu egiten dugu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

BATX CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
2	1 -Diseinuaren bilakaera historikoa eta esparruak.	12	5 - Diseinu grafikoa. Irudi korporatiboa. Aplikazio praktikoa: Logotipoa . (ordenagailu bitarteko diseinua)	10	8 - Diseinu grafikoa. Konposizio modularrak
4	2 -Diseinu grafikoaren teoria eta metodologia. Teoria eta praktika.	12	6 - Diseinu grafikoa: Publizitatea. Aplikazio praktikoa: Kartela (ordenagailu bitarteko	8	9 - Hiru dimentsio+diseinu grafikoa (erakusketariak eta ontziratzea).

			diseinua).		
18	3-Diseinu grafikoa. Itxuratze formalaren elementuak. Teoria eta diseinu grafikoko aplikazio praktikoak: -Seinaletika. -Irudiaren sintesia. -Elementu formalen baliabideak (forma, atzealdea, ingerada) - Irudi motak: abstraktua, figuratiboa eta sinbolikoa (edalontzi-azpikoak).	8	7- Diseinu grafikoa: argitaratze diseinua. Aplikazio praktikoa: Agendaren azala.	8	10-Produktuaren diseinua. Aplikazio praktikoa: aulkiaren diseinua.
9	4- Diseinu grafikoa. Tipografia			2	11-Espazioaren diseinua. Teoria.

Denbora faltarengatik zerbait eman gabe utziko bagenu, azkeneko bi unitateak izango lirateke (denbora gutxien behar dutenak eta USE-n sartuko ez direnak.

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Arloa, lanak eskuz eta modu digitalean egiteko aukera ematen duenez, Info 4-n (informatika gelan) ematen da.

Materiaren apunteak eta ariketen proposamenak **Classroom** plataforma digitalaren bidez ere ematen dira. Hau ere, ikasleek zenbait lan aurkezteko erabiltzen da.

Jarduera motak:

- Unitate Didaktiko eta gai bakoitzaren hasieran, irakasleak gaiari buruzko azalpenak apunte, irudi eta aurkezpen digitalen bitartez ematen ditu.

- **Diseinu lanak analizatzen dira** emandako gidoi bat jarraituz, idatziz eta ahoz (ikasle eta irakasleak).

- **Dokumentazio lana.** Ikasleak, zenbait unitateetan, gaiarekin loturiko informazioa eta materialaren bilketa, sailkapena eta balioztapena egiten du.

- **Lan praktikoak.** Ikasleak, funtzio jakin bati erantzuna ematen dion diseinu lan bat gauzatzen du. Ariketa laburrak edo proiektu luzeak izan daitezke, indibidualak edo taldean. Hauetariko batzuk ordenagailuz egiten dira Inkscape programaren bitartez.

- **Azterketak** Ebaluazio bakoitzean azterketa bat jarriko zaie USE-EBAU azterketaren ereduari jarraituz.

Eskatutako funtzio bati erantzuna ematen dion diseinu lan bat sortu eta, defendatuz, iruzkina egin beharko dute.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluazio bakoitzeko nota horrela osatuko da:

- **Lan praktikoak:** % 45 (honen barnean: % 90a aurkeztutako ariketaren kalitateak, eta % 10a ikasleak gelan egindako lanak eta jarrerak)

- **Azterketak:** % 45

- **Iruzkinak eta talde lanak:** % 10

Ebaluazioren batean talde lanik edo iruzkinik ez balego, lanek %50 eta azterketak %50 puntuatuko lukete.

Ebaluazioren nota finalean hiru atal hauek hartuko dira kontutan. Ebaluazioa gaituta izateko, atal bakoitzean gutxienez 4 bat izan behar da eta atal guztien noten batura 5era iritsiko beharko da.

Nota finalerako hiru ebaluazioren batz bestekoa egiten da, horretarako ebaluazio guztietan 4 bat gutxienez lortu behar da. Batz bestekoa 5ekoa edo altuagoa bada, arloa gaituta ematen da. Batezbestekoa ez bada 5era iristen, ebaluazioren batean ez bada 4ra iritsi edo bi ebaluazio suspenditurik badira, ikaslea Nahikotasun azterketara aurkeztu beharko da.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Nota Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.

- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gaitutako baldintza 5era iritea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

- Ikasleak gelan egindako lanaren %10a bakarrik lanaren kalitatea (%90a) gaindituta dagoenean gehituko da. Hori da, lanaren kalitatea gainditzeko dena. Gelan egindako lanean (%10a), lanarekiko jarrera orokorrean kontutan hartzen da, baita jarrera ere: erakutsitako interesa, ahalegintze maila, talde-laneko parte hartzea, ikaskide eta irakaslearekiko errespetua, materiala zaindu eta gelara eramatea eta euskararen erabilera.

- Lan praktikoei %100ean puntuatzeko, ezinbestekoa izango da garaiz ematea. Lan bat, justifikatu gabe, epetik kanpo, egun batetik aste baterako atzerapenarekin aurkeztu bada, puntu 1 jaitziko zaio. Aste bat baino gehiagoko atzerapenarekin aurkeztu bada, puntu 1 jaitzi eta, gehienez, 5 batekin puntuatuko da.

- Lanak klasean bertan egin beharko dira eta etxean osatu daitezke bukatzen ez badira, beti ere, gelan emandako denborari probetxu ateratzen bazaio.

- Berreskurapenak eta gaixotasunak salbuespen, ez da ebaluatuko klasean landu ez den ariketarik.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

1) EBALUAZIOAREN BERRESKURAPENA.

- Ebaluazioa gainditu gabe geratzen bada, suspenditutako azterketa edota suspenditutako edo ez aurkeztutako lanak errepikatu egin beharko dira. Hauek egin ondoren, atal bakoitzean (lan praktikoa, azterketa eta talde-lana- iruzkinak) 4ra iritsi bada eta hiru atalen puntuazioaren baturan 5era iristen bada, ebaluazioa berreskuratuta geratzen da.

- **Azterketan** bi atal daude. **Teorikoa (%30-40)** eta **praktikoa (%60-70)**. Teorikoan gutxienez 4 bat atera behar da bien batz bestekoa egin ahal izateko, praktikokoan, gutxienez 5. Teorikoan ez bada 4ra iristen eta praktikoa gaindituta badago, azterketa teorikoa bakarrik errepikatzeko aukera izanen dute, horrela ere, azterketa teorikoaren nota, berreskurapena denez, gehienez 5ekoa izanen da, baina berreskurapen osoarena 5 baino altuagoa izan daiteke (froga praktikokoaren arabera). Azterketaren froga praktikoa ez bada 5 era iristen, azterketa osorik berreskuratu beharko da.

- Azterketa suspenditu bada eta lan praktikokoak gaindituak badaude, bakarrik azterketa errepikatuko da. Azterketaren berreskurapenean 5era iristen bada, lan praktikoen nota mantentzen da ebaluazioko batz bestekoa egiterakoan.

- Ezingo da berreskurapenetara aurkeztu gainditutako nota igotzeko.

2) NAHIKOTASUN AZTERKETA edo OHIKO DEIALDIA

Hiru ebaluaketan batz bestekoa ez bada 5era iristen, ebaluaketaren batetan ez bada 4ra iritsi edo 2 ebaluaketa suspenditurik baditu, ikaslea **Nahikotasun azterketara** aurkeztu beharko da. Azterketa hau egiteko ezinbestekoa izanen da ikasturtean zehar suspendituriko edota ez aurkezturiko lana guztiak entregatzea. Nahikotasun azterketan ikasturtean ikusitako edozein unitatearekin loturiko lan praktikoa eta iruzkina eskatu daitezke.

Aurkezturiko lan praktikoen batez bestekoak Nahikotasunaren notaren % 50 ekarriko du eta gainerako %50 azterketak. Gainditzeko, zati bakoitzean 4 bat gutxienez atera beharko du eta bien batz bestekoa 5era iritsi behar du. Azterketa honetan egiten diren ebaluazioetan 4era iristen bada, aurretik gainditutako ebaluazioekin batz bestekoa egiten da. Batz bestekoan 5, gutxienez, atera behar da.

Ikaslea, nahiz eta ikasturtea suspenditu, Nahikotasunera aurkeztuko ez balitz, suspendituriko nota ikasturteko batz bestekoa izanen litzateke.

3) EZ OHIKO DEIALDIA

Ohiko deialdiko notan 5 era iristen ez bada, **ez ohiko deialdira** aurkeztu beharko da. Azterketara aurkeztzerakoan, Nahikotasunean (ohikoa) bezala, ikasturtean zehar ez gainditutako edo ez aurkezturiko lanak eman beharko ditu.

Lan praktikoen batez bestekoak notaren % 50 ekarriko du eta gainerako %50 azterketak. Gainditzeko, zati bakoitzean 4 bat gutxienez atera beharko du eta bien artean 5era iritsi.

Arloa suspenditurik izanda ikaslea ezohiko azterketara aurkeztuko ez balitz, ikasturtean izandako notak ez lirateke kontutan izanen.

4) EBALUATZEKO ESKUBIDEA HUTSEGITEENGATIK GALTZEA.

Ikasle bat arloko saio kopuruaren %20ra justifikaturik gabe faltatuko balitz, ebaluaziorako eskubidea galduko luke eta Ekaineko nahikotasun azterketara (ohiko deialdia) aurkeztu beharko litzateke, honek suposatzen duen baldintzekin.

KANPOKO EBALUAZIOA

Aipatu den bezala, USEko azterketan borondatezko faseko arloa izanen da, eta azterketa horren eredia ikasturtean zehar landuko da.

